



Kultura
Zientifikoko Katedra
Cátedra
Cultura Científica

Zientziaren Ertzetik

Hitzaldi-solasaldia: Vega Asensio

Giza-eboluzioa ilustratzen

Durangon, 2023ko abenduak 4. Genero-arrakala zientziaren hainbat arlotan islatzen da. Emakumeen ikerketa-karreraren eragina dauka baina, horretaz gain, eduki zientifiko okerrak sortzen ditu. Ondorioz, denboran zehar indartu diren estereotipo eta ideia okerrak baieztapen zientifiko bilakatzeko arriskua dago.

Horren adibide dira zientzian erabilitako zenbait irudi, esaterako, ilustrazio zientifikoak. Datu eta zenbakiekin bakarrik emandako informazioa gogoratzea zailagoa da eta [irudiek ulertzen eta gogoratzen laguntzen digute](#). Adibidez, **paleontologiaren kasuan ilustrazio zientifikoek berebiziko garrantzia daukate**. Kontuan izan behar da garai horretako lekukotza grafiko nahikorik ez dagoela egindako aurkikuntzak azaltzeko.

Hala ere, **irudi horiek genero ikuspegi zehatz batetik egin dira eta gaur egun gure gizartean dagoen arrakalaren isla baino ez dira**. Esaterako, ebidentzia zientifikoan oinarritu gabe, emakumeak ez dira kontuan hartu eta egungo rol sexistak egokitu zaizkie. Hortaz, beharrezkoa da orain arte egindako lanak berraztertzea eta berdintasun eza indartu duten detaileak identifikatzea.

Vega Asensio ikertzaile eta ilustratzaile zientifikoak gai horiek jorratuko ditu **"Giza eboluzioa ilustratzen"** hitzaldian [Euskal Herriko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekak antolatutako Zientziaren Ertzetik hitzaldi zientifikoaren zikloan.



Hitzaldia **abenduaren 15ean, 18:30ean**, izango da [Durangoko Bizenta Mogel liburutegian](#). Sarrera librea izango da aforoa bete arte. Hitzaldi-solasaldia streaming-ez jarraitzeko aukera ere egongo da [EiTB Kosmos](#) kanalean.

Hizlaria

Vega Asensio Biologian doktorea da (UPV/EHU) eta Europako hainbat unibertsitatetan lan eta ikasi du ikertzaile bezala. 2011. urtean [Norarte Visual Science](#) ilustrazio zientifikoko estudioa sortu zuen komunikazioa eta zientzia-dibulgazioa hobetzeko asmoz eta bere bi zaletasunak batuz, zientzia eta marrazketa alegia. Gaur egun [UPV/EHUren ilustrazio zientifikoko lehen graduondoko](#) koordinatzailea da.

Hitzaldi-solasaldia: Giza eboluzioa ilustratzen

Hizlaria: Vega Asensio ilustratzaile zientifikoa.

Eguna: Abenduak 15, ostirala.

Ordua: 18:30.

Tokia: Durangoko Bizenta Mogel Liburutegia (Komentukalea kalea, 8).



Kultura
Zientifikoko Katedra
Cátedra
Cultura Científica

Zientziaren Ertzetik

Charla-coloquio: Vega Asensio

Ilustrando la evolución humana

En Durango, a 4 de diciembre de 2023. La brecha de género tiene su reflejo en el ámbito científico. Tiene consecuencias en la carrera de investigación de las mujeres pero, además, conlleva la creación de contenido científico erróneo. De hecho, con el tiempo ha ocurrido que ideas y estereotipos incorrectos se hayan convertido en afirmaciones científicas.

Ejemplo de ello son algunas de las ilustraciones utilizadas en el ámbito científico. Imágenes que son muy importantes a la hora de divulgar ciencia, ya que hay que tener en cuenta que recordar información solo con datos y números es mucho más difícil que hacerlo mediante imágenes. La paleontología es un buen ejemplo.

Actualmente no tenemos **muchas referencias gráficas de la época que estudia la paleontología** y algunas de ellas se han confeccionado desde un **punto de vista de género concreto y no son más que el reflejo de la brecha existente en la sociedad actual**. Por ejemplo, sin basarse en la evidencia científica, no se ha tenido en cuenta el comportamiento humano y se han aplicado los roles sexistas actuales. Por esa razón es necesario volver a analizar los trabajos realizados hasta el momento e identificar los detalles que refuerzan la desigualdad.

Ese será el tema que desarrollará la investigadora e ilustradora científica **Vega Asensio** en su charla “Ilustrando la evolución humana” dentro del ciclo Zientziaren Ertzetik organizado por la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) y la [Biblioteca Bizenta Mogel de Durango](#).



La charla tendrá lugar el **15 de diciembre en la Biblioteca Bizenta Mogel a las 18:30**. La entrada será libre hasta completar aforo. Además la charla se podrá seguir por streaming en el canal [Kosmos de EITB](#).

Ponente

Vega Asensio es doctora en Biología por la Universidad del País Vasco (UPV/EHU). Ha trabajado y estudiado en diferentes universidades europeas como investigadora. Fundó el Estudio de Ilustración Científica [NorArte Visual Science](#) en 2011. Un proyecto en el que ha podido unir sus dos pasiones, dibujo y ciencia, movida por la necesidad de mejorar la comunicación y la divulgación científica. Actualmente es coordinador del primer [posgrado de ilustración científica en la UPV/EHU](#).

Charla-coloquio: Ilustrando la evolución humana

Ponente: Vega Asensio, ilustradora científica.

Día: 15 de diciembre, viernes.

Hora: 18:30.

Lugar: Biblioteca Bizenta Mogel de Durango (Calle Komentukalea, 8).